

Korrika egitera atera, eta bi poltsa handi bete libururekin itzuli da goizean Carlos, kalean aurkituta, papera birziklatzeko edukiontzien ondoan, ongi jakin arren etxean apenas dugula liburu gehiagorako tokirik. Negoziario latza hasi da, asteburu osoan luzatuko dena, erabaki baitugu bi egunotan bahealdi zorrotza egin, eta bakarrik interesgarriak diren aleak atxikitzea, erabili beharreko irizpideak zehazki adostu gabe. Susmoa dut nik baino pliniotarrago jokatuko duela berak («uste zuen Pliniok ez dagoela zerbait ona ez edukitzeko bezain liburu txarrik») garbiketant.



JIRA
Angel Erro

Berez, hunkigarria zait habiatik eroritako txitak balira adina maitasunekin nola biltzen dituen liburu abandonatuak, gaur egun liburutegiek ezta dohaintzan ere nahi ez dituztenak, paper ore bihur ditzaten ideiak biguinduta, liburutegintzan aritzen den jende asko ez bezala.

Gaur bertan, Ignacio Echeverria kritikariari Bradburyren *Fahrenheit 451* liburuko suhiltzaileen nolabaiteko defentsa leitu diot. Nik ez dut (zuzenean) libururik erretzeko proposatuko. Banan banan, bakoitzaren zerizanaren arabera, hiriko toki batean edo bestean *bookcrossing* delakoa egin ez uzteko, argazkiekin dokumentatuta. Ia korrika egitea bezain onuragarria omen da pasieran ibiltzea.

Buruketak

Hona Txinako eskola batean, matematikako azterketan, 5. mailako umeei jarri zieten buruketa bat: itsasontzi batek 16 ardi eta 10 ahuntz badaramatza, zenbat urte izango ditu kapitainak? «Gutxienez 18 urte eduki behar ditu, itsasontziak gidatzeko adinez nagusia izan beharra dagoelako», erantzun zuen ikasle batek. «36 urte dauzka, 26+10=36 delako eta animalia kopuru bere urte kopuruarekin bat etortzea gura zuelako», beste batek. «Ez dakit», idatzi zuen hiru garrenak.



BIRA
Miren Amuriza

Sare sozialetan hedapen handia izan du egunotan, eta agertu da galdera zentzu bakoitzat jo duenik, baina baita originala eta eraginkorra iruditu zaionik ere. Ikastetxetik bertatik azaldu dutenez, umeeek gabezia nabarmenak dituzte pentsamendu kritikoa iradokitzen, batik bat matematiketan, eta horretarako formulatu zuten buruketa hori: ikasleek kritikotasuna ez eze, sormena ere martxan jar zezaten. Entzun izan diot plastikako eskolako ematen dituen lagun bati, bertoko nerabeek ere zailtasunak edukitzen dituztena: behin, orri zuri batean marrazki abstraktu bat egiteko eskatu ei zien 12-13 urteko gazte txoei eta blokeatu egin ei ziren gehienak.

Hortaz, ikasle batek matematikako lau ariketa, kimikako hiru, gramatikako bi eta historiako bat badaramatza etxerako, zenbat margo zorrotzuko ditu arratsalde horretan? Zenbat aldiz egingo du *pinoa*? Zenbatetan esango du «ideia bat daukat»?

Portu eta Sarasola kasuaren lezioa

Jon Mirena Landa
Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedra zuzendaria EHUn

Estrasburgoko Auzitegiak, Giza Eskubideen gaitan Europan autoritate gehien duen Auzitegiak alegia, Espainia beste behin ere kondenatu du, Portu eta Sarasola kasuaren harira, 2018ko otsailaren 13ko (3. Aretoko) epai baten bitartez.

Epaia ezohikoa da; izan ere, lehenengo aldiz aspaldiko partez urraketa «sustantiboa» ere aitortzen baita: hau da, Estrasburgok dio Espainiako agenteek tratu txarrik eta ez-gizatiarrak eman zizkiela atxilotutakoiei. Aurreko beste kasuetan, benetan zer gertatu zen jakin ezinean, kondena bakarrik «prozesala» izaten zen: hots, Espainiako autoritatei behar bezala ez ikertzea leporatzen zitzaie. Kontuan eduki beharra dago tortura definizioz ezkutuko lekutan gertatzen dela, lekukorik gabe, atxilotuak guztiz polizien eskuetan daudela. Horretan oinarrituta, Estrasburgok obligazio prozesala ezartzen die Estatuok ordezkariak: haiei dagokie gertatu denaren bertsio koherentea eta sinesgarria ematea. Haiek ikertu behar dute salaketak daudenean, haiek bakarrik argitu dezaketelako. Beste hitzetan: ikerketarik ez badago, ezingo da tortura dagoenik frogatu. Ikertzeko grinak nolabait frogatzen du noraino Estatuak torturen aurka edo torturak estaltzeko tankean dabilen. Laburbildurik: susmorik badago, ikertu egin behar da; ikertu ezean, kondena.

Portu eta Sarasolaren kasuan denok ikusi genituen susmo horiek eta bi: atxilotu eta berehala ospitalean bukatu baitzuten, kolpatuak goitik behera, saihestak eta guzti apurturik. Tortura sofistikuatua, aztarna fisikorik gabekoa, aurrera eramanez ahal den herrialdeetan gutxiatik ikusten dira «beste garaietako» tortura basati fisikoak: horietan, ordea, ematen zuen, gertatu berriak zirela 2008ko errege-egunean Guardia Zibilaren eskutik. Susmo horien aurrean Estrasburgok orain esan du, batetik, tortura-debekua alderdi prozesalean urratu dela behar bezala ikertu ez delako; baina, haratago joanez, aldarrikatu ere egiten du, tratu txarrik egon zirela: hots, urraketa alderdi sustantiboa.

Baina nola argudiatzen du Estrasburgok esandakoa? Hortan datza nire ustez gakoak.

Estrasburgoko epaiak dakarren alderdirik garrantzitsuen Espainiako Auzitegi Gorenari egiten dion kritika eta zuzenketa erabatekoa da. Gogoratu beharra dago Gipuzkoako Auzitegiak, 2010eko abenduaren 30eko epaiaren bitartez, Guardia Zibila kondenatu zuela, modu argi eta garbian, torturak zirela kausa. Tortura sistematikoki ukatzen den giroan, Portu eta Sarasolaren kasua Zigor Kode berriaren lehenengo kondena izatera deitua zenean, Auzitegi Gorenak horri buelta eman zion, eta absolbitu zituen Guardia Zibil guztiak. Gipuzkoako Auzitegiaren epaia txukuna izan zen, teknikoki: frogabidea oso ondo argudiatuak zegoen, batez ere auzi medikuen txostenean. Txostenek esker bi bertsioen atakatik aterabidea aurkitzen da. Izan ere, tortura kasuetan beti bi bertsio baitaude: atxilotuek torturatuak izan zirela zioten, alde batetik, eta, bestetik, guardia zibilek ezetz, atxilotuak aurreko plakaketa eta erresistentziaren ondorio besterik ez zela. Horren aurrean, auzi medikuen txostenak erabakigarriak izan ziren.

Auzitegi Gorenak, aitzitik, goitik behera ukatu zuen auzi medikuen txostenaren indarra, Portu eta Sarasola ETAK aginduta gezurretan ari zirelakoan. Bada, Auzitegi Gorenak emandako bertsio hori ukatzen du indar osoz Estrasburgok: hor dago epaiaren koxka. Estrasburgok, nolabait, zera galdetzen dio Espainiako Auzitegi Gorenari: auzi medikuaren txostenaren bertsioa ukatzen baduzu,

Espainiako Auzitegi Gorenak emandako bertsio hori ukatzen du indar osoz Estrasburgok: hor dago epaiaren koxka. Estrasburgok, nolabait, zera galdetzen dio Espainiako Auzitegi Gorenari: auzi medikuaren txostenaren bertsioa ukatzen baduzu, zein da zurea?

zein da zurea? Eta galdera horren aurrean Estrasburgok ez du zentzuzko erantzunik topatzen. Izan gaitzen gorrigoak: Estrasburgok Auzitegi Gorenaren argudiobidea hutsala, funtsarik gabekoa zela argi eta garbi salatzen du.

Areago: Estrasburgok zeharkako eran Gipuzkoako bertsioa lehenesten du. Eta ez bakarrik alderdi sustantiboa. Auzi medikuen txostenak gorabehera, berme prozesalean falta ere leporatzen dio Estrasburgok Auzitegi Gorenari. Azken horrek Gipuzkoan kondenatzeko erabili ziren frogak deuseztatu zituelako: lekukoak ez ei ziren sinesgarri; Portu eta Sarasola are gutxiago ETAK aginduta salaketa faltuak egiten omen zituztelako, eta abar. Auzitegi Gorenak sendoa zen epaia hustu egin zuen, frogak «desagerraraziz». Gipuzkoako Auzitegiari «errieta» modukoa egin zion, eta kideek ziria sartzen utziak zirela bortizki aurpegiratu. Eta hara noiz eta zortzi urte beranduago, Estrasburgok Auzitegi Gorenak eman zuen bertsioa barregarri utzi du. Horretarako zera argitzen du Giza Eskubideen Auzitegiak: lehenengo instantzian frogatuta dagoena errotik berrikusi nahi bada, orduan ahozko epaiketa eta alde guztietara parte hartzeko aukera zabala eman behar dagoela.

Auzitegi Gorenari lotsatu beharko litzateke: alderdi substantiboa argudio falta eta alderdi prozesalean bermirik eza agerian gelditu direlako. Batek esan lezake, Auzitegi Gorenak torturak ba ote ziren bilatu nahian baino, ahalegin guztiak eta bi egin zituela Guardia zibilak «nola edo hala» zigorgabetzeko. Eta hori guztia beste gauzetan hain present dagoen Auzitegi Konstituzionalak kasu honetan hasiera batetik inongo parte hartze berririk. Susmoa dago zenbait gaitan Auzitegi Konstituzionala ez dagoela, bere lana Estrasburgok egin behar duela.

Demokrazia da boterearen kontrola eta horretarako epaile-administrazio sendoa behar da. Noizko ausartuko da Espainiako Justizia-Administrazioa tortura kasuetan behar bezala aritzen? Hari eta hori gertatu artean, Estrasburgok dugu itxaropen bakarra. Estrasburgok bere mugekin: berandu baitator; kasuak berrirekitzera behartzeko indarra ez du eta; Espainiako Estatuaren neurri estrukturalak behartzeko indarririk ez duela. Baina behintzat injustizia egin eta ukatu ondoren, lezioa ematen du: ez da gutxi.